

ERRENTERIAKO HEGAZTIAK

Tomas Aierbe

Errenteriak, jakina denez, paper garrantzitsua bete du Gipuzkoako garapen industrialean. Agian honek eraginda, daitekeena da errenteriarrok landa eta natur inguruneari bizkarra emanda bizi ohi izatea eta neurri batean gune hauek pixka bat ahazturik edukitzea.

Baina horrek ez du esan nahi landa eta natur inguruneak garrantzirik ez duenik gure herrian. Errenteria, azalerari dagokionez, 21. postuan sailkatzen da Gipuzkoako beste 88 herrien artean, 3.208 ha izanik. Azalera hau, 1996.ean Eusko Jaurlaritzak argitaratutako baso-inbentarioaren arabera, atal hauetan banatzen da:

Ura (urtegiak eta ibaiak)	58 ha
Hirigunea	252 ha
Belardiak	626 ha
Mendiko larreak	6 ha
Sastrakadiak	192 ha
Labore intentsiboak (baratzak, berotegiak)	9 ha
Baso bakandua	148 ha
Baso trinkoa	1918 ha
	<hr/>
	3.208 ha

Hau da, aurreko taularen arabera, Errenteriako azalera osoaren %92a landak eta natur inguruneak osatzen dute. Azalera honen %70a arbolek estaltzen dute, %21a belardiek, %6a sastrakadiak eta %2a, urek. Kopuru hauek ikusirik, bidezkoa dirudi beraz, gure inguruneari arreta pixka bat jartzea.

Ingurune fisiko hau habitat desberdinez osaturik dago: itsasoaren eragina jasotzen dutenak; baso autoktonoak; baserri ondoko belardiak; ibai eta erreken inguruak; otadi, txilardi eta beste sastrakadiak; eta espezie exotikoz landatutako pinudiak, besteak beste. Habitat hauetan biziko dira Errenteriako basa animaliak eta hauen artean aipatuko ditugun hegaztiak. Horrela, adibidez, eremu urbanoan azaltzen diren espezieak, Zamalbide aldean



Añarbe. (Aiako Harriko Parke Naturala).

agertzen direnak edo Añarbeko pagadi-hariztian dauden espezieak desberdinak izango dira, kasu batzutan, ohitura eta elikadura desberdinak dituztelako.

Errenteriako hegaztiak ikertzerakoan, behar bada sortuko zaigun lehenengo kezka, gure herriko espezie desberdinen kopurua zenbatekoa den jakitea izango da. Baina horretarako, lehenik, aipamen bat egin beharrean gaude: gure latitudean, hegaztien banaketa aldakorra da, batez ere urtean zehar migratzeko duten gaitasunarengatik.

Era honetan, mota askotako hegaztiak agertzen dira Errenterian. Hegazti sedentarioak, urte osoan ingurutik mugitzen ez direnak; hegazti negutarrak, udaberria iristerakoan beste latitude tara joango direnak; eta, migratzaile partzialak, beraien populazioek gehikuntza nabaria jasaten dutenak neguan, iparraldetik datozen aleek eraginda. Horrez gain, hotz-boladak etortzen direnean, Errenterian ohi-



Lertxun Hauskara.

koak ez diren hegazti batzuk sartu izan dira, bertako hegaztien banaketa berriz ere aldatuz.

Udaberrian eta udaran, hegazti negutarrak desagertuko dira (gehienak behintzat) eta, sedentarioekin elkartuko dira neguan ikusten ez diren hegazti berri batzuk, hau da, udako hegaztiak, hegoaldeetik datozenak umetzera.

Udara aurrera doan heinean, iparraldetik datozen migratzaile goiztiarrak bertan umetzen ari direnekin nahasten dira.

Udazkena etorritakoan, espezie batzuk gure herritik pasatzen dira hegoalderantz beraien neguko kokagunetarako bidean, eta beraien hegaldi-eraketek ikuskizun ederrak erakusten dizkigute. Horrez gain, urtaro honetan, normalean hemen ohikoak ez diren espezie arrotzak ikusteko aukera ere izan ohi dugu, beraien hegoalderako migrazioan atseden hartzen baitute gure mendietan.

Ikusten denez, ez da erraza "zenbat hegazti espezie daude Erreterian" galderari erantzutea, hegaztien banaketak urtean zehar jasaten duen aldakortasunarengatik. Baina gauzak erraztu daitezke, Erreterian umetzen duten espezieetara mugatzen bagara.

Herri mailan, hegazti habiagileen banaketari buruzko ikerketa ugari ez badago ere, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Gipuzkoan badaude honi buruzko argitalpenak. Honela, 1985ean "EAEko Ornodun Kontinentalen Ikerketa" plazaratu zen, bertan, "EAEko Hegazti Habiagileen Atlas" jasotzen zelarik. Bestalde, 2001ean, "Gipuzkoako Hegazti Habiagileen Atlas" argitaratu da eta bertan, Gipuzkoako espezieen banaketen emaitzak eguneratu dira.

Atlas hauetan, mapa bat diseinatzen da espezie habiagile bakoitzeko. Horretarako, 10 X 10 km-ko UTM koadrikulen sarea sortzen da. Bertan, koadrikula bakoitzean adierazten da hegaztiaren habiagintza-indizea. Habiagintza-indizea hiru motakoa da: posiblea, probablea eta segurua. Hau, hegaztien habiagintzari jartzen zaion mailaketa bat da eta esan nahi du hegaztiak koadrikula horretan umetu dezakeela, probablea dela umetzea edo umetu duela segurua. Hori esateko zantzu desberdinetan oinarritzen gara:

- Garai eta habitat egokian ikusita hegaztia, esango dugu honen habiagintza-indizea posiblea dela.
- Arra entzunez gero eremu-kantuak jotzen, espeziea ikusiz gero bere eremuan ezarrita (arren arteko borrokak, pertsekuzioak, eta abar), arra eta emeen arteko jolasak behatuz gero edo habia eraikitzen sumatuz gero, esango dugu hegazti hauen habiagintza-indizea probablea dela.
- Azkenik, hegaztiak zauritu itxura eginez topatuz gero, urte barruan ibilitako habia edo arrautza azalak topatuz gero, urteko gazteak behatuz gero, helduak jana edo kaka mokotan duela ikusiz gero edo habian hegaztia bera topatuz gero txituekin edo arrautzak bertzen, habiagintza-indizea segurua dela esango dugu.

Kasu honetan, Erreteriarako eremua 30 T WN 89, 30 T WN 99, 30 T WN 88 eta 30 T WN 98 UTM koadrikuletan kokatua dago, eta, batez ere "Gipuzkoako Hegazti Habiagileen Atlas"etik jasotako informazioaren arabera, zera esan daiteke: Erreterian dauden hegazti habiagile posibleak, probableak edo seguruak 1. taulan bildutakoak direla.

Bestalde, 2. taulan, gure herrian ohikoak diren hegazti negutar batzuk jasotzen dira.

Lehenago esan dudan eran, badaude migra- tzerakoan, gure herritik ia urtero pasatzen diren hegaztiak. Ildo honetatik, hegazti habiagile (1. taula) edo hegazti negutar moduan (2. taula) bil- dutako espezie asko, migratzaileen taldean egon zitezkeen, beraien populazioen multzo bat horrela portatzen baita. Bai- na, badaude hegazti ba- tzuk, Erreterian, batik bat migratzerakoan ikusten dire- nak. Hauen artean 3. tau- lan aipatutakoak nabarmen- duko nituzke.

Baita ere, aipatu dut, batzutan hotz-boladekin es- pezie arrotzak azaltzen di- rela gure herrian. Gertaera hau ez da urterokoa eta gai- nera etorritako espezieak ez dira beti berdinak izaten, beraz, arriskutsu xamarra izango litzateke espezie hauek zeintzuk izango lira- tekeen aurreratzea.



Okil Beltza.

Azkenik, aipa daitezke Kaio Hankahoria- ren (*Larus cachinnans*), Sai Arrearen (*Gyps ful- vus*) eta Sai Zuriaren (*Neophron percnopterus*) kasuak. Lehenengo espezieko hegaztiak Erren- teriako eremuan finkatuta ez badaude ere, egunero ikusten ditugu gure herrian, Pasaia (Jaizkibel) eta Donostiako (Ulia) ugalkolonietatik gertu gaudelako eta San Marko- seko zabortegia jateko era- biltzen dutelako. Sai Arrea edo putrearen kasuan, Oiar- tzunen eta Lesakan ditu ha- biak eta Aiako Harria eta Urdaburu bitarteko mendi- eremua erabiltzen du bes- teak beste bere jana lor- tzeko. Sai Zuriari dagokio- nez berriz, Lesakan umetzen du eta gure mendi inguru- tara etorri ohi da, baita ere jan bila.

1. Taula (Erreterriako hegazti-espezie habiagileak)

Izen zientifikoa	Euskerazko izena	Gaztelaniazko izena	Habiagintza-indizea
<i>Anas platyrhynchos</i>	Basahatea	Anade Azulón	Segurua
<i>Pernis apivorus</i>	Zapelaitz Liztorjalea	Halcón Abejero	Posiblea
<i>Milvus migrans</i>	Miru Beltza	Milano Negro	Posiblea
<i>Circaetus gallicus</i>	Arrano Suzejalea	Culebrera Europea	Posiblea
<i>Circus cyaneus</i>	Mirotz Zuria	Aguilucho Pálido	Posiblea
<i>Accipiter nisus</i>	Gabiraia	Gavilán	Posiblea
<i>Buteo buteo</i>	Zapelatza	Busardo Ratonero	Segurua
<i>Falco tinnunculus</i>	Belatz Gorria	Cernícalo Vulgar	Segurua
<i>Falco peregrinus</i>	Belatz Handia	Halcón Peregrino	Segurua
<i>Gallinula chloropus</i>	Urolloa	Polla de Agua	Segurua
<i>Streptopelia decaocto</i>	Usapal Turkiarra	Tórtola Turca	Probablea
<i>Streptopelia turtur</i>	Usapal Arrunta	Tórtola Europea	Probablea
<i>Cuculus canorus</i>	Kukua	Cuco	Segurua
<i>Tyto alba</i>	Hontza Zuria	Lechuza Común	Segurua
<i>Otus scops</i>	Apo Hontza	Autillo	Probablea
<i>Athene noctua</i>	Mozoloa	Mochuelo	Probablea
<i>Strix aluco</i>	Urubi Arrunta	Cárabo Común	Segurua
<i>Caprimulgus europaeus</i>	Zata Arrunta	Chotacabras Gris	Segurua
<i>Apus apus</i>	Sorbeltz arrunta	Vencejo Común	Segurua
<i>Jynx torquilla</i>	Lepitzulia	Torcecuellos	Probablea
<i>Picus viridis</i>	Okil Berdea	Piño Real	Probablea
<i>Dendrocopos major</i>	Okil Handia	Piño Picapinos	Segurua
<i>Dendrocopos minor</i>	Okil Txikia	Piño Menor	Probablea
<i>Ptyonoprogne rupestris</i>	Haitz-Enara	Avión Roquero	Segurua
<i>Hirundo rustica</i>	Enara Arrunta	Golondrina Común	Segurua
<i>Delichon urbica</i>	Enara Azpizuria	Avión Común	Segurua
<i>Anthus trivialis</i>	Uda Txirta	Bisbita Arbóreo	Segurua
<i>Motacilla cinerea</i>	Buztanikara Horia	Lavandera Cascadeña	Segurua
<i>Motacilla alba</i>	Buztanikara Zuria	Lavandera Blanca	Segurua
<i>Cinclus cinclus</i>	Ur-Zozoa	Mirlo Acuático	Segurua
<i>Troglodytes troglodytes</i>	Txepetxa	Chochín	Segurua
<i>Prunella modularis</i>	Tuntun Arrunta	Acentor Común	Segurua

<i>Erithacus rubecula</i>	Txantxangorria	Petirrojo	Segurua
<i>Phoenicurus ochruros</i>	Buztangorri Iluna	Colirrojo Tizón	Segurua
<i>Saxicola torquata</i>	Pitxartxar Burubeltza	Tarabilla Común	Segurua
<i>Turdus merula</i>	Zozoa	Mirlo Común	Segurua
<i>Turdus philomelos</i>	Birigarro Arrunta	Zorzal Común	Segurua
<i>Turdus viscivorus</i>	Garraztarroa	Zorzal Charlo	Probablea
<i>Cettia cetti</i>	Errekaxindorra	Ruiseñor Bastardo	Probablea
<i>Cisticola juncidis</i>	Ihi-Txoria	Buitrón	Probablea
<i>Locustella naevia</i>	Benarriz Nabarra	Buscarla Pintoja	Probablea
<i>Hippolais polyglotta</i>	Sasi-txori Arrunta	Zarcerero Común	Probablea
<i>Sylvia undata</i>	Ota-Txinboa	Curruca Rabilarga	Segurua
<i>Sylvia borin</i>	Baso-Txinboa	Curruca Mosquitera	Probablea
<i>Sylvia atricapilla</i>	Txinbo Kaskabeltza	Curruca Capirotada	Segurua
<i>Phylloscopus brehmii</i>	Txio Iberiarra	Mosquitero Ibérico	Probablea
<i>Regulus ignicapillus</i>	Erregetxo Bekainzurria	Reyezuelo Listado	Probablea
<i>Muscicapa striata</i>	Euli-txori Grisa	Papamoscas Gris	Segurua
<i>Ficedula hypoleuca</i>	Euli-txori Beltza	Papamoscas Cerrojillo	Probablea
<i>Aegithalos caudatus</i>	Buztanluzea	Mito	Probablea
<i>Parus palustris</i>	Kaskabeltz Txikia	Carbonero Palustre	Segurua
<i>Parus cristatus</i>	Amiloix Mottoduna	Herrerillo Capuchino	Segurua
<i>Parus ater</i>	Pinu-Kaskabeltza	Carbonero Garrapinos	Segurua
<i>Parus caeruleus</i>	Amiloix Urdina	Herrerillo Común	Segurua
<i>Parus major</i>	Kaskabeltz Handia	Carbonero Común	Segurua
<i>Sitta europaea</i>	Garrapoa	Trepador Azul	Probablea
<i>Certhia brachydactyla</i>	Gerritxori Arrunta	Agateador Común	Probablea
<i>Lanius collurio</i>	Antzandubi Arrunta	Alcaudón Dorsirrojo	Segurua
<i>Garrulus glandarius</i>	Eskinosoa	Arrendajo Común	Segurua
<i>Corvus corone</i>	Belabeltza	Corneja Negra	Segurua
<i>Corvus corax</i>	Erroia	Cuervo	Segurua
<i>Sturnus vulgaris</i>	Arabazozo Pikarta	Estornino Pinto	Posiblea
<i>Passer domesticus</i>	Etxe-txolarrea	Gorrión Común	Segurua
<i>Passer montanus</i>	Landa-txolarrea	Gorrión Molinero	Posiblea
<i>Fringilla coelebs</i>	Txonta Arrunta	Pinzón Vulgar	Segurua
<i>Serinus serinus</i>	Txiriskil Arrunta	Verdecillo	Probablea
<i>Carduelis chloris</i>	Txorru Arrunta	Verderón Común	Probablea
<i>Carduelis carduelis</i>	Karnaba	Jilguero	Segurua
<i>Carduelis cannabina</i>	Txoka Arrunta	Pardillo Común	Probablea
<i>Pyrrhula pyrrhula</i>	Gailupa	Camachuelo Común	Segurua
<i>Emberiza citrinella</i>	Berdantza Horia	Escribano Cerillo	Probablea
<i>Emberiza cirius</i>	Hesi-berdantza	Escribano Soteño	Probablea
<i>Millaria calandra</i>	Gari-berdantza	Triguero	Probablea

2. Taula (Errenteriako ohiko hegazti negutarrak)

Izen zientifikoa	Euskerazko izena	Gaztelaniazko izena
<i>Phalacrocorax carbo</i>	Ubarroi Handia	Cormorán Grande
<i>Ardea cinerea</i>	Lertxun Hauskara	Garza Real
<i>Egretta garzetta</i>	Lertxuntxo Txikia	Garçeta Común
<i>Scolopax rusticola</i>	Oilagorra	Chocha Perdiz
<i>Larus ridibundus</i>	Anxeta Mokogorria	Gaviota Reidora
<i>Larus argentatus</i>	Kaio Hauskara	Gaviota Argentea
<i>Larus fuscus</i>	Kaio Iluna	Gaviota Sombria
<i>Alcedo atthis</i>	Martin Arrantzalea	Martin Pescador
<i>Anthus pratensis</i>	Landa-Txirta	Bisbita Campestre
<i>Phylloscopus collybita</i>	Txio Arrunta	Mosquitero Común
<i>Carduelis spinus</i>	Tarina	Lúgano

3. Taula (Errenterian batik bat migrazioan ikusten diren hegaztiak)

Izen zientifikoa	Euskerazko izena	Gaztelaniazko izena
<i>Anser anser</i>	Anizar Hankagorritza	Ansar Común
<i>Milvus milvus</i>	Miru Gorria	Milano Real
<i>Grus grus</i>	Kurrilo Arrunta	Grulla Común
<i>Vanellus vanellus</i>	Hegabera	Avefría
<i>Actitis hypoleucos</i>	Kuliska Txikia	Andarrios Chico
<i>Tringa ochropus</i>	Kuliska Iluna	Andarrios Grande
<i>Columba palumbus</i>	Pagausoa	Paloma Torcaz
<i>Columba oenas</i>	Txoloma	Paloma Zurita
<i>Upupa epops</i>	Argi-Oilarra	Abubilla
<i>Alauda arvensis</i>	Hegaxabal Arrunta	Alondra Común
<i>Motacilla flava</i>	Larre-buztanikara	Lavandera Boyera
<i>Oenanthe oenanthe</i>	Buztanzuri Arrunta	Collalba Gris
<i>Saxicola rubetra</i>	Pitxartxar Nabarra	Tarabilla Norteña
<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	Buztangorri Argia	Colirrojo Real
<i>Turdus pilaris</i>	Durdula	Zorzal Real
<i>Turdus iliacus</i>	Birigarro Txikia	Zorzal Alirrojo
<i>Fringilla montifringilla</i>	Negu-Txonta	Pinzón Real